

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Identitate borroka

SUTAN sumatu dugu Kataluniako gizartea Alderdi Popularrak, Wert ministroa buru, aurkeztu berri duen hezkuntza erreformarekin. Haserrea nabaritu da Euskal Herrian. Bada desberdintasunik bata eta bestearen artean. Katalanen gehiengo handiak bere-berea sentitzen duen hizkuntza eta hezkuntza proiektua arrisku bizian ikusten ditu. Han askoz aurrera-tuago daude katalanaren garape-nean, eta hortik erasoaren aurreko erantzuna. Hizkuntza muinean, berriz ere.

Erasoa gordina baita: PPren bir-zentralizatzeko politika, autonomismoari eraso, gaztelania ez diren beste hizkuntzei eraso, hezkuntza uniformatzeko saioa... Askok aipatu du hizkuntzaren ikuspegitik frankismotik hona izan den eraso-aldi handiena dela hau. EAeko parlamentuko ordezkariaren %85 mintzatu da proiektuaren aurka alderdien bidez. Eta bitxia bada ere, Nafarroako foru legebiltzarren kasuan arbuioa handiagoa da, alderdien adierazpenak aintzat hartuta, ordezkarien %92k adierazi baitu ez dagoela ados Wertekin.

Bai, badakit Nafarroako kasuan tranpa egin dudala. Egia da UPNk esan duela legeak aldaketak behar dituela, ezin dela dagoen bezala onartu, besteak beste Nafarroako Euskararen Legearekin arazoak leudekeelako. Bai, PPko lau parlamentariak bakarrik daude ados Nafarroan, baina UPNko 19ak ere pozarren leudeke Wert lege berri batek D ereduaren berezko zailtasunak behin betiko finkatuko balitu.

Kontua da, nork eta UPNk, zuhur atera behar izan duela legearen aurrean. UPN eta zuhur?

Kontrajarria, ezta? Baina garaio-tan hala dabil alderdi nabarrista, zuhur. Oposizioaren bultzadaz, estu dabil legebiltzarrean; aurre-kontuak luzatu beharko ditu; alderdi barruan tentsioa bizi du, eta berau gidatzeko seguruenik bi lehendakari izango ditu hurrengo udaberriko kongresuan, Yolanda Barcina eta Carlos Catalán. Eta beretzat larriena, krisia medio, bere gobernuak higadura handia jasan duela herritarren artean. UPN baitan beldur handia dago hauteskundeetako emaitzekiko, eta dagoeneko ez da zalantzarik hauteskundeak aurreratu egingo direla. Kontua da noiz: UPNko kongresuaren aurretik ez da izango, eta beraz, zalantza da 2013ko uda aurretik izango den edo ondoren.

Wert ministroaren legea gauzatuko balitz, nola demontre joango da EAeko lehendakari berria Moncloara kosubiranotasunaz mintzatzeraz?

Eta non kokatzen da puzzle honetan lerro hauek idazten ari naizen unean lehertu den Cervera auzia? Azkarregi da jakiteko, baina auziari kiratsa dario. Santiago Cerverak bere blogean emandako azalpenak sinesgarritasun eskasa du: edo diruaren hotsak bera ere galarazi du –epidemia da hori PPn–, baina orduan erarik baldarrenean jardun du; edo bai, norbaitek zelada jarri die bai berari eta baita Jose Antonio Asiaini ere. Astea bero dator kontu honekin, baina berriz geratzen da agerian CANek zulo beltz ugari izan

dituela azken 10 urteotan. Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuak CAN sakon iker zezan bultzatu zuen oposizioak, baina PSNk uko egin zion. Orain, zipriztinak noraino iritsiko diren ikusi behar.

Baina PP eta Wert ministroaren asmoez ari nintzen. Zalantza gutxi dago, aurrera eramango dute, ikusi behar Katalunia eta EAEREkin negoziatuta ala ez. Kataluniak argi esan du, ez du lege hau onartuko. Kontua da egungo eredu eta PPren asmoen artean ez dagoela tarte onargarririk katalana, euskara edo galegoarentzat. Edo PPk inposatzen du berea eta gatazka instituzional erraldoia zabaltzen da Espainian, edo berea inposatzen du eta frankismoaren bertsio modernoan murgiltzen gara. Hautatu egin behar. PPK Espainiako Estatuaren indar osoa du bere atzean. Zein da euskal herritar eta katalanen indarra?

URKULLU lehendakariak oso ibilbide gaitza du aurrez aurre, krisiaren zailtasunei, Espainiako estatu ereduarena ere gehitu beharko dio. Wert ministroaren legea gauzatuko balitz, nola demontre joango da EAeko lehendakari berria Moncloara kosubiranotasunaz mintzatzeraz? Frankismoak abertzaletasuna elikatzen zuen gisa berean elikatzen du orain PPK independentismoa. Bai bere erraietan dagoelako Espainia bakar eta batuaren ereduarena, eta baita ere, krisi garai latz haue-tan horrek Espainiako gizartea kohesionatzeko balio diolako. Euskal gizarteak zein osagaiekin egingo ote du bere zementua? ■

